

HIRIGINTZA FITXA. - 11 SO. ITZIARKO ANBULATORIOA ETA ITZIARKO GIZARTE ETXEA ITZIAR ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Itziarko hiri egitura eratzen duen elementua da, herriko ekipamenduetako bat eta Itziarko plazetako bat izaki, bai kokapenagatik bai bere ezaugarriengatik.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 522 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : HIRITARRA.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA: Komunitatearen ekipamenduko zona: osasun eta sorospeneko ekipamendua (11. artikulua: G.5).
Erabilera eta jabari publikoko espazio libreak.

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hiri Antolaketako Arau hauen ondorioetarako, hirigintzako esku-hartze alderdi bakar bat bezala eratuko da.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Alboko plazaren ekipamendua eta esparrua finkatzea. Esparrua handitzeko aukera.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Gizarte erabilerako sistema orokorra..... 166 m²

Plaza. Haur jolasak..... 375 m²

3.2. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri. Handitu beharra izanez gero, proiektu arkitektonikoaren arabera.

Eraikuntza. Hiritartutako multzoa finkatzea.

Erabilera (Oro har, 12. artikulua)
Oinezkoentzako pasealekua. Plaza. Berdegunea.
Haur jolasak.

3.3. EKIPAMENDU, HIRITARTZE ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabekoak.

Handitze lanik eginez gero, desjabetze sistema baliatuko da beharrezko diren lurak eskuratzeko. Handitze lanak egiteko aldameneko zonak hartzean, ez da beharrezkoa izango ez planeamendua aldatzerik ez lurzorua birsailkatzerik.